

Bilbon, 2002ko apirilaren 26an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, buruordea (goizean),
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Antonio Arana, diruzaina,
Beñat Oihartzabal, Iker Sailburua,
Andres Urrutia, Jagon Sailburua,
Patxi Altuna,
Jean Louis Davant,
Andolin Eguzkitza,
Patxi Goenaga,
Andres Iñigo,
Frantzisko Ondarra,
Pello Salaburu,
Juan San Martin
Jose Mari Satrustegi
eta Piarres Xarritton, euskaltzainak,
Jose Luis Lizundia idazkariorde-
-kudeatzailea,
M. Gorrotxategi Onomastika
batzordearen idazkaria (1.1. gaian)

Batzarra goizeko 10,15etan hasi da Akademiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla. J.M. Lekuonak, M. Azkaratek eta I. Sarasolak ezin etorria adierazi dute, azken biok, hurrenez hurren, beren botoak P. Goenagaren eta P. Salabururen esku utziz.

Halaber A. Urrutiak beranduago helduko dela jakinarazi du eta bitartean bere botoa X. Kintanari utziz.

Aurreko batzar agiria onartzea

Inork zuzenketarik egin gabe, aurreko bileraren akta onartu da.

Omenaldiak

Hasieran Euskaltzainburuak aurreko aste-etan J.M. Lekuona eta J.M. Satrustegi euskaltzainei egin dizkieten omenaldien berri eman du, bioi zorionak emanaz.

1. Hizkuntz arauak

1.1. Onomastika

Ondoren Nafarroa Behereko Herri Izendegiaren 3 zerrenda (Arberoa) aztertzeraren iragan da.

Hasteko, A. Iñigok adierazi du toponimoen marrak eta loturak arautzeko txosten bat prestatzen ari dela, maiatzeko bileran aurkezteko asmoz. Zerrendari dagokiola Bastida-Klarentza eta Isturitz kasuetan zer egin behar den galdetu du, lege-aginduak eta marra-arazoa gogoan izanez.

E. Larrek hitza hartu eta Iparraldean badirela 12 bat toki Bastida izenekoak (auneak, herrixkak etab.) jakinarazi du. eta horiek nolabait bereiztu beharra dagoela.

P. Xarrittonek, ordea, ez du uste horiek asmatu behar ditugunik herri-usuarioaren kontra.

J.L. Lizundiak esan du formularen bat aurkitu behar dela izen bereko bi herri elkarrengandik bereizteko. Ofizialtasuna dugun eremuetan, gainera, bereizi beharra derrigorrezkoa da. B. Oihartzabalek era eta maila askotako toponimoak ere badirela go-

goratu du: aurkientza, auzotegi, jatorrizko tokia etab. eta kasuistika luzea denez, J.L. Lizundiarekin bat etorritz, puntu hau hobeki aztertu beharra dagoela uste du.

J.M. Satrustegiren ustez, Uitzin, Orixeren omenaldian, Donibane-Garazi, Uharte-Arakil gisako izen bikoitzez harturiko erabakiak gogoan izan behar ditugu, orduan jada irizpidea jarri baitzen. A. Iñigok kasuistika ongi aztertu behar dela esan du, eta Isturitzeri buruz ahalik eta lekukotasunik ugariena jasotzeko prest daudela Onomastika-batzordean.

B. Oihartzabalek txosten bat irakurri du Isturitze-Isturitzeri buruz. Corpusean s-az Barandiaranek ez bestek darabil. Bestalde, z-az eta x-az zeintzuek erabili duten azaldu du. Horretaz inkesta bat egin beharko litzateke. Arazoa argitzeko, J. Haritschelharrek xt eta zt duten hitz batzuen zerrenda agertu du.

J.A. Aranaren ustez, inkestak ez gintuzke behartu behar era mintzatueta mar-kurtzera. Era berean, X. Kintanak ipar eta hegoaldeko toponimoen forma idatzia erabakitzeko irizpide-ezberdintasuna aipatu du, Mehaine eta Isturitze artean dagoen kontraesana nabarmenduz, gaur biak, esan, -r-rik gabe esaten diren arren, batean ortografiatik kendu eta bestean errespetatzen baita. B. Oihartzabalek azaldu du hor erabilera-ohitura ezberdinak izan direla.

Xarrittonek, auzi honetan erabaki aitzin, Monho, Joanategi, Arotzarena, Moulrier eta iparraldeko beste idazle batzuen lanak ere kontuan hartzeko eskatu du.

A. Iñigok galdetu du, lekuko idatzirik ezaz, ea nola erabaki daitezkeen arberoar eta donoztiritar moduko hitzak. J.L. Lizundiak esan du gogoan izan behar dugula, hegoaldean ez bezala, Frantziako Iraultza garaitik iparraldean eskualde historikoak desagertu direla, eta maiz, horiekin batera, haien izenen memoria historikoa ere bai. Beraz, antzinako dokumenturik ezaz analogiaz jokatu beharra dagoela uste du..

Ondorioz, zerrendako gainerako hitzekin batera, **donoztiri**, **donoztiritar** onartu dira eta **arberoar**, **Isturitze**, **Bastida Klarentza**, **Bastida Arberoa** hitzak, datu gehiago bildu ondoren, berriz ikusteko utzi dira.

1.2. Hiztegi Batua

P. Salaburuk a letraz hasten diren hitzen zerrenda amaitzeko kronograma aurkeztu du, horretarako 11 bilera inguru beharko direla gogoratuz. Lana azkartzeko, bestalde, hemendik aurrera zerrendak binan emanen ditu. Bestalde, oharrrik gabeko hitzen zerrenda bilera bertan banatuko ditu. A. Eguzkitzak alde aurretik bidaltzea eskatu du, izan litezkeen lapsusak zuzentzeko. Eskaria, ordea, ez da beharrezkoa ikusi, lapsusak gero zuzenduko baitira, argitaratu baino lehen, horiei buruzko oharrak batzordera bidaliz.

Oharrrik gabeko hitzak onartu dira.

ahuakate-aitzitik hitz –zerrendako oharrak ikustea.

Euskaltzainek eginiko oharrak banan banan ikusi dira *aire* hitzeraino.

Goizeko bilera ordu bi eta hamar minutuetan eten zen, bazkari legea egiteko.

* * *

Arratsaldeko 4,25etan goizean hasiriko bilerari segida eman zaio.

2. Nafarroako Gobernuaren hitzarmena

Andres Iñigok Nafarroako Gobernuarekiko harremanen berri eman du. Atlasaren arazoaz ez zirela gehiegi kezkatu eta Euskaltzaindiaren azken proposamenari ez diotela inolako erreparorik egin esan du. Nabari denez, haien benetako ardura hitzarmen berria egitea da. Horretarako, Nafarroako Gobernuak hitzarmen berriaren testua Euskaltzaindira bidali duela azaldu du. Aurreko bileran erabaki bezala, Zuzendaritzak testu horri oharrak egin eta Nafarroako Gobernuari berriro igorri dio. Gaur, oharrok kontuan izanda, nafar gobernuagandik azken testua jaso eta euskaltzainen artean banatu da. A. Iñigok adierazi duenez, Pegenautek atzo esan zion ez zuela nahi testua gure artean ateratzea. Hortaz, banatu diren hitzarmen-testuak, eztabaidatu ondoren, berriz ere biltzea proposatu da.

Ondoren A. Urrutiak hartu du hitza. Gaur aurkezten den testu hau, eztabaidak eta oharrak egin eta gero, Nafarroako Gobernuari berriro bihurtuko zaio. Honi argi gogorarazi zaio esan zaio, iazko dirua jaso arte Euskaltzaindiak ez duela hitzarmen berria sinatuko.

P. Salaburuk galdetu du ea zer gertatzen den atlasaz. Kezka bera azaldu du B. Oihartzabalek. A. Urrutiak erantzun dio ez diotela inolako oztoporik jarri Euskaltzaindiaren proposamenari eta, beraz, ontzat emana dela ulertu behar dela. Edozein kasutan, hori protokoloan agertuko dela.

P. Goenagak azaldu du ondo ulertzen duela Euskaltzaindiak iazko laguntza eta hitzarmen berria elkarrekin lotu nahi izatea, baina berez bata ez duela bestearekin zer ikusirik. Bietarako konpromisoak ezberdinak dira. Erantzunez, A. Urrutiak esan dio gure helburua bikoitza dela, alde batetik, iazko dirua eskuratzea eta, bestetik, hitzarmen duin berria egitea. Hortaz, puntu bi horietan zalantzarik izanez gero, ez lukeela deus egingo. Gogoratu du, halaber, Euskaltzaindiaren ekonomi egoera konpondu beharra dagoela. Bestalde, P. Goenagari eskatu dio bera beste gobernu batean dagoela ahanzteko.

Goenagak mesfidantza agertu du, ez baitakusa hain garbi Euskaltzaindiak iazko dirua jasoko duenik. A. Urrutiak esan dio guztiok izan ditzakegula geure erreserbak baina akademiaren egoera ziurtatu beharra dagoela.

Ondoren, A. Urrutia testu biak irakurtzen eta oharrak azaltzen hasi da, hots, Nafarroako Gobernuak hasieran bidalia eta geroago, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak egindako oharrak jaso ondoan, gaur igorri diguna.

Funtzionarioak liberatzeko konpromisoari dagokionez, P. Goenagak hori erabat airean gelditzen dela esan du. A. Urrutiak azaldu dio hortik bederen zirrikitu bat zabalitzen dela, besterik ez.

Aurrekontuetan Euskaltzaindiarentzako partida nominatiboari dagokionez, P. Salaburuk galdetu du ea hori ezin uler daitekeen `gauza konkretuetarako'. A. Urrutiak erantzun dio ezetz, hori ezinezkoa dela, protokoloan zehaztuko delako.

Euskaltzaindiaren ordezkari zari dagokionez, P. Salaburuk esan du berak nahiago lukeela sailburuak joatea. A. Eguzkitzak bileratik alde egin beharra dauka eta A. Iñigori uzten dio botoa.

P. Goenagak, 10. orrialdeari dagokiola, galdetu du ea Nafar Gobernuak ordainketak atzeratuz gero, zer gertatuko den, eta ez al dagoen hori zehazterik, interesak edo eskatuz. A. Urrutiak erantzun dionez, administrazioarekin ez dago hori eskatzerik.

Idazkeran lapsusen bat nabarmendu dira, Nafar Gobernuari azaldu beharrekoak. Bestalde, erdal testu osoan, *euskara* behin ere aipatu gabe, beti *vascuence* hitza erabiltzen dela eta, A. Urrutiak Euskaltzaindiak eranskin hau sartzea proposatzen du: *Las referencias que se hacen en el presente convenio al vascuence se entienden por Euskaltzaindia como euskara o lengua vasca.*

Hasieran esan bezala, testua banatu eta eztabaidatu ondoren, ale guztiak bildu egin dira eta aktan hala jartzea eskatu dute Patxi Goenagak eta Andres Urrutiak. Holaraxe egin da. Testua, bestalde, aho batez onartu da. Edonola ere, P.Salaburuk ez du ulertzen sekretismo hori eta prozedura bera ez zaio gustatu: P. Goenagak gauza bera adierazi du

Euskaltzainburuak Jagon sailburuari eta nafar ordezkariari eskerrak eman dizkie, Nafarroako Gobernuarekiko harremanetan beren lana ongi bete dutelako.

3. Eskuartekoak

J. Haritschelharrek Eusko Legebiltzarrak apirilaren 18ko ekitaldian, Euskaltzaindiari emaniko 31 CD-Rom emaitza azaldu du, euskal liburu zaharrekin, gure biblioteka aberasteko. Orduan sinaturiko dokumentuaren kopia euskaltzainen artean banatu da.

4. Azken ordukoak

4.1. A. Iñigok Iruñeko udalak aurten antolatu duen literatur lehiaketaren berri eman du, erdaraz modalitate bakarra den bitartean, gurean euskara batua edo nafar euskalkietan jarritz. Bestalde, erabaki hori hartu aitzin, Euskaltzaindiari inolako berririk edo galderarik egin ez arren, gure Akademiari epaimahai horretan parte hartzea eskatzen diote. A. Urrutiak esan du Iruñeko udalarekin komenio bat genuela, hark aspaldian bete gabea, hortik Euskaltzaindiak eskuratu behar zuen dirua barne. J.L. Lizundiak, bestetik, gogora ekarri du euskalkiei buruz Euskaltzaindiaren doktrina zein den: guztiok ortografia eta, ahal den neurrian, morfologia bera erabiltzea. Beraz, udalari esan behar zaio, alde batetik, bete dezala Euskaltzaindiarekin duen hitzarmena, zor zaiguna ordainduz eta txapelketetarako oinarriak jartzeko orduan gurekin harremanak ere izanez. Euskaltzaindiak parte hartzea eskatu duen zinegotziari hala erantzungo zaio. Hitzarmen berririk egin behar izatekotan, euskaltzainburuak sinatuko luke.

X. Kintanak esan du dialektoei buruz indarrean dugun adierazpena aski zaharra dela eta oraingo egoera berrirako beste bat egin beharko litzatekeela, hor ortografia eta morfologia kontuez gainera, erabilera-esparruak ere nolabait zehaztuz. A. Urrutiak erantzun dio Jagon sailean euskalkien lantaldean horretan ari direla.

4.2. Ondoren Patxi Goenagak hitza eskatu du *El Correon* (2002.04.19), H. Knörrri eginiko elkarrizketa batekin argitaratu den artikulu bati buruz mintzatzeko, hor zabaldu diren berri asko gezurrak edota aski itxuraldatuak baitira. Adibidez, Eusko Jaur-laritzak ez du Nafarroako Gobernu inondik ere salatu, eta hortaz martxoaren 11an Jarraipen-Batzordeak Gasteizen egin zuen bileran argi eta garbi esan zen han egoera

berria konstatatzea besterik ez zela egiten. Bestalde, bertoko diputazioek eta Jaurlaritzak berek sortu ez duten arazoari, diru-aurrerapenez eta, irtenbidea eman nahi dioten bitartean, ematen du, hitzarmen berrirako testua bidali duelako, gauzak behar den moduan egin dituen Nafarroako Gobernuak dela, eta gaizki jokatu dutenak EAEko agintek izan direla, Euskaltzaindiari oraindik hitzarmen berriaren testua helarazi ez diotelako. Beraz, gertakariak itxuraldaturik ematen dira, gauzak nahasiz.

Hortaz, Euskaltzaindiari hiru galdera hauek egiten dizkio:

1. Ea Euskaltzain-buruordeak *El Correok* argitaratutakoarekin ados den.
2. Ea Knörr jaunak kaleratu duena Euskaltzaindiaren eta Zuzendaritzaren iritzia den.
3. Gauzak bere lekuan jartzeko, Euskaltzaindiak prentsa oharrik edo argitaratu duen.

Erantzunez, H. Knörrrek azaldu du berak ez duela artikulu hori idatzi. Aitzitik, berak kazetariari idatziz beste bat bidali ziola, baina horrek hura bere kasa informazioa laburtu eta itxuraldatu duela. Bere testuari, euskaltzainen artean banatu denari, begiratzeko esan du, eta ez publikatu zaiolari.

Euskaltzainburuak, hitza harturik, arazo hori Zuzendaritzan agertu eta luze eztabaidatu zela argitu du.

Andres Iñigok esan du berari ere kazetariak Iruñeko udalaren sariketaz galdetu diotela. M. Satrustegik, halaber, gogorra deritza ika-mikako egoera honi eta, esperientzia propioaz, badakiela oso zaila izaten dela kazetarien erasoetatik ihes egitea.

B. Oihartzabalek uste du oraingo arazo honetatik esperientzia atera behar dela aurrerantzean harri berean ez behaztopatzeko. Bere aburuz, agintariekiko diru-harremenez beti modu ofizialez aritu beharra dago, gure akademiaren jarrera ofiziala zein den garbi gera dadin, eta jendeak ere hori argi jakin dezan.

A. Urrutiak esan du hitz egiteko askatasuna ez zaiola inori ukatzen, baina arriskuak ere hor dira. Kontua da ea noraino heltzen den euskaltzain bakoitzak erantzuteko duen askatasuna?

Bñat Oihartzabalek hor kontraesana dakusa: alde batetik mintzatzeko askatasunaren alde agertzen gara baina gero ez gara egindako adierazpenen erabileren erantzule egiten, kazetarien morbozaletasuna jakin arren. Bere iritziz, ez da komeni krisialdian edozer esatea, hortik zer nolako ondorioak gerta daitezkeen pentsatzeke. Edonola ere, esan behar da prentsan agertua ez dela Euskaltzaindiaren iritzi ofiziala.

Patxi Goenagak ez deritza egoki nafar gobernuari eskaintzen zaion begirunea Eusko Jaurlaritzari ez ematea. Egindako 3 galderak erantzutea eskatzen du.

Andres Urrutiak euskaltzain guztien jarrera berdin epaitu beharko liritekeela uste du, hobespenik agertu gabe. H. Knörrrek, bere ustez, zenbaitzuek batzuen alde eta beste batzuen aurka *indignation selective* delakoa erabiltzen dutela esan du.

Ez da erraza, B. Oihartzabalen ustez, euskaltzainen iritzia noraino mugatu behar diren zehaztea. Kargudunen erantzukizuna handiagoa dela pentsatzen du, ohiko euskaltzainena baino. A. Urrutia horretan bat dator, irizpide horiek elkarren artean eztabaidatu eta kontsentsuatuko bagenitu, oraingo egoera latz honetatik behin betiko ateratzeko.

4.3. X. Kintanak Nafarroako Unibertsitate publikoan euskaraz ikasteko duten eskubidea aldarrikatzeagatik ikasle euskaldunekin oraintsu gertatua gogoratu du, eta egoera latz horren aurrean Euskaltzaindiak zerbait esan beharko lukeela pentsatzen du. Euskaltzainburuak Jagon sailari pasatzen dio horri buruzko agiria egitea, hala komeni dela iritzi gero. J.L. Lizundiak: arriskugarria deritzo ikasleen aldeko adierazpena atertzeari, hori berez alderdi politikoan, edo, zehazkiago esan, talde parlamentarioen zeregina baita. Jagon sailburuak uste du adierazpena agian Tuteran egin eta argitaratu beharko litzatekeela, beti ere nafar euskaltzainekin mintzatu ondoren.

Bilera arratsko 7etan bukatu da.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Xabier Kintana